

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

127/2026 Foru Agindua, martxoaren 5koa. Arraia-Maeztuko Udaleko bitarteko izendapena duen Elda Sanmamed Soto idazkari kontuhartzaile kargutik kentzea, lanpostua behin betiko bete delako

Foru agindu bidez, Elda Sanmamed Sotoren bitarteko izendapena egin zen, Arraia-Maeztuko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 2011ko maiatzaren 2tik aurrerako ondorioekin.

2026ko urtarrilaren 27ko EHAA (17. zk.), Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2026ko urtarrilaren 22ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez Ana María Larrarte Querejeta izendatzen baita estatuturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen eskalako karrerako funtzionario, eta lehen destinoa esleitzen baitaio Arraia-Maeztuko Udalean.

2026ko otsailaren 27ko idazkiaren bidez, alkateak jakinarazi zuen funtzionario horrek egun horretan hartu zuela kargua, eta gaur egun lanpostua betetzen ari den bitarteko funtzionarioa lanpostutik kentzeko eskatu zuen, aurre-aurreko ondorio datarekin.

Estatuturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko bigarren apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 54. artikulua ezartzen duenez, lanpostua behin betiko hornitzeak, baldin eta lanpostua behin-behineko edo bitarteko funtzionarioak betetzen ari badira, automatikoki ekarriko du lanpostu hori betetzen ari zena kargutik kentzea.

Estatuturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betetzeko eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Elda Sanmamed Soto Arraia-Maeztuko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea 2026ko otsailaren 26tik aurrerako ondorioekin, behin betiko izendapenaren bidez bete delako lanpostu hori. 2011ko maiatzaren 2tik betetzen zuen lanpostu hori bitarteko izendapenez.

Bigarrena. Foru agindu hau dagozkion ondorioetarako jakinaraztea Arraia-Maeztuko Udaleri eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bi-deari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Vitoria-Gasteizko

Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 5a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA